



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

5. Ordenantza Fiskala Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga

I. IXEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan eta Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, Ermuko udalerrian Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri da eta zerga hori ordainarazi egin behar da ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauan eta zerga ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

II. IZAERA ETA ZERGA-EGITATEA

2. ARTIKULUA

1. Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga da. Zergaldian hirilurren balioak izandako gehikuntzagatik ordaintzen da, lurren jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo haien gaineko eduki-eskubide errealeen bat, jabaria mugatzen duena, eratzen edo eskualdatzen denean.

2. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta landalurtzat jotzen diren lurren balioaren gehikuntzagatik ez da honako zerga hau ordaintzen.

Hiri-lurren balio-gehitzearen zergari lotuta egongo da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirilurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza, Katastroan edo Zergaren Erroldan halakotzat ageri edo ez.

Zerga honen ondorioetarako, ezaugarri bereziko higiezin gisa sailkatutako lurzoruek duten balio-gehikuntza zerga honen mende egongo da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

3. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkiotenean ez dago Zerga ordaindu beharrik, ez eta hark ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituenen eta ezkontideek ondasun komunak ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkiotenean ere.

Halaber, ezkontza deuseztatu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatuz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago zergaren kargapean, ezkontzaren araubide ekonomikoa dena delakoa ere.

Gauza bera aplikatuko da, aurreko paragrafoetan aipatu balizkoen arabera, Izatezko Bikoteak arautzeko den maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei.

4. Ez dira zergapean egongo eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursail horien balioen arteko aldeetatik balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen den lursailen eskualdatzeak.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko interesa duen pertsonak edo entitateak eskualdatzea deklaratu beharko du, bai eta eskualdatzea eta eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu ere. Ondorio horietarako, pertsona edo entitate interesdunak dira ordenantza honen 5. artikuluan zehazten direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, lursailaren eskualdatze- edo eskuraketabaliotzat hartuko da, kasu bakoitzean, balio hauetatik handiena. Ondorio horietarako, ezin dira eragiketa horiek kargatzen dituzten gastu edo tributuak zenbatu, eta denbora igarotzeagatik ezin da eguneratzerik egin.

a) Eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasota dagoena.

b) Hala dagokionean, zerga-administrazioak egiaztatu duena.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin baten eskualdatzea denean, lurzoruaren baliotzat hartuko da, ondorio horietarako, zergaren sortzapen-datan lursailaren katastro- balioak duen proportzioa katastro-balio osoarekiko aplikatuta ateratzen dena. Eta, lurzoruaren katastro-balioa eta eraikuntza banakatu gabe badaude, lurzoruaren baliotzat hartu ahal izango da katastro-balioaren gaineko % 40, eta proportzio hori eskualdatze-balioari (eta, hala badagokio, eskuratze-balioari) aplikatuko zaio. Paragrafo honetan ezarritakoa gorabehera, aurreikusitakoaz bestelako proportzio bat aplikatu ahal izango da, pertsona edo entitate interesdunak hala egiaztatzen duenean.

Eskuratzea edo eskualdatzea kostu gabekoa denean, aurreko paragrafoetako arauak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, lehen aipatu diren alderatu beharreko bi baloreetatik lehenengotzat hartuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

3. ARTIKULUA

Aurreko artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren ondoretarako, ondokoak joko dira hirilurtzat:

a) Hiri-lurzorua, urbanizagaia, urbanizagarria edo ez urbanizagarria, eta hori Hirigintzako Jarduketarako Egitaraua onesten den unetik; zoladuradun bideak edo espaloien xingolaketa izan eta estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa duten lurrak eta hiri-eraikuntzek atzematen dituztenak.

b) Nekazaritzari buruzko Legerian ezarri denaren aurka zatikatzen diren lurrak ere honetakotzat hartuko dira, beti ere zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen duenean, horregatik lur horien landa izaeraren aldakuntzarik jazo gabe, honako zerga honetarako ez bada.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

5. Ordenantza Fiskala Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. ARTIKULUA

1. Balio-gehikuntzak zerga honetatik aske daude zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsona edo erakundeak direnean:

a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera, zerga honetatik aske daude multzo historiko-artistikotzat jotako eremu baten barruan dauden ondasunen edo kultur intereseko adierazitako ondasunen eskualdaketak, baldin eta jabeek edo eskubide errealeen titularrek frogatzen badute higiezinak artatzeko, hobetzeko edo zaharberritzeko obrak egin dituztela euren kargura, 20. artikuluari jarraiki balio-gehikuntza izan den denboraldian.

2. Halaber, balio-gehikuntzak zerga honetatik aske daude, zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsonak edo erakundeak direnean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako toki-erakundeak, eta Autonomia Erkidegoko eta toki-erakunde horietako organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.

b) Zerga ezartzen duen udala eta berorretan integraturiko edo bera partaide duten gainerako toki erakundeak, eta beraren administrazio-erakunde autonomiadunak.

c) Ongintzako edo ongintza irakaskuntzako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

e) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena aintzatetsi zaien pertsona edo erakundeak.

f) Administrazioaren emakida lehengoragarrien titullarrak, haiei loturiko lurrei dagokienez.

g) Gurutze Gorria eta antzeko beste erakundeek, beti ere zeintzuk diren arauz xedatzen direnean.

3. Zerga hori ez da sortuko sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren VI. Tituluaren VII. kapituluaren xedatutako araubide bereziaren peko eragiketen ondorioz eskualdatzen diren hiri-lurzoruen kasuan, salbu eta aipaturiko Foru Arauaren 111. artikuluan aurreikusitakoaren pean ematen diren lurzoruak direla, eta jarduera-adar batean txertatuta ez badaude.

Alabaina, lurzoru horiek hurrengo batean eskualdatzen direnean, Foru Araudiaren VI. Tituluaren VII. Kapituluan aurreikusitako eragiketen ondoriozko eskualdaketa horren bidez ez da etentzat joko lurzoruen balioa handitzea ekarri duten urteen kopurua.

4. Zerga horretatik salbuetsita egongo dira hipoteka-zordunak edo bermatzaileak etxebizitza ordainean emateko eta hipotekaren bidez etxebizitzarekin bermatutako zorrak kitatzeko egiten diren eskualdaketak, salbu eta era profesionalean hipoteka-maileguak edo -kredituak egiten dituzten kreditu-erakundeekin edo pareko beste erakundeekin hartutako zorrak direla.

Era berean, zergatik salbuetsita egongo dira aipatu berri ditugun baldintza berberak beteta, hipoteka-betearazpen judizialen edo notarialen bidez egiten diren etxebizitza eskualdaketak ere.

Salbuespen-eskubidea eskuratzeko, etxea eskualdatzen duen zordunak edo bermatzaileak, edota beraren familia-unitateko beste edozein kidek, ez dute izan behar, etxebizitza besterentzeko unean, hipoteka-zor osoa kitatzeko besteko ondasunik edo eskubiderik. Besterik ezean, baldintza hori bete egiten dela joko da beti. Alabaina, gerora kontrakoa egiaztatuko balitz, dagokion zerga-likidazioa aginduko litzateke.

Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat joko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 87. artikulua 8. atalean halakotzat zehazten dena.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan xedatutakoak aginduko du. Ondorio horretarako, ezkontideak eta izatezko bikotekideak parekotzat joko dira, Eusko Legebiltzarraren Maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. ARTIKULUA

1. Ondokoak dira zergaren subjektu pasiboak:

a) Irabazteko asmoarekin lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen dituen, edo eratzen edo eskualdatzen den eskubide erreala jasotzen duen pertsona fisiko zein juridikoa, edota Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea.

b) Kostu bidez lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen dituen, edo eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona fisiko zein juridikoa, edota Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea.

2. Aurreko ataleko b) letran aipatzen diren kasuetarako, zergadunaren ordezkari subjektu pasibo izango da lursaila erosi duen pertsona fisiko zein juridikoa edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea, edo kasuan kasuko eskubide erreala eratu edo eskualdatu zaiona, Espainian bizi ez den pertsona fisiko denean zergaduna.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

5. Ordenantza Fiskala Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga

3. Hipoteka-zordunak edo beraren bermatzaileak euren ohiko etxebizitza ordainean ematen dutenean, edota hipoteka betearazpen judizialen edo notarialen ondorioz eskualdatzen dutenean, eta eskualdatze hori kreditu-erakunde baten alde edota profesionalki hipoteka-kredituak edo -maileguak ematen dituen beste edozein erakunde baten alde egiten denean, higiezin eskuratzen duen erakundeak zergadunaren ordezkotako subjektu pasibo izaera eskuratuko du, eta ezin izango dio inoiz zergadunari exijitu berak ordaindutako zergen zenbatekoa ordain diezaiola. Atal honetan aurreikusitakoa gauzatzeko, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 2. artikuluan 4. atalean salbuespen-eskubidea izateko aurreikusitako baldintza berdinduta berdinak.

V. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

1. Zerga honen oinarria lursailen balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez ere hogeitaz urtean metatutakoa. Zerga-oinarria honela zehaztuko da, artikuluan honen 4. idatz-zatian ezarritakoa gorabehera: lursailak sortzapen-unean duen balioa artikuluan honetako 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu, bider sortzapen-aldiari dagokion koefizientea 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

2. Lurrek sortzapen-unean izan duten balioa erregela hauen bitartez kalkulatu da:

a) Lur-eskualdaketa, lurren balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoretarako finkatutakoa izango da. Erabileraren batean lurraren eta eraikuntzaren katastro-balioa ez badago banakatuta, balio horren %60 aplikatu ahal izango da.

b) Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eduki-eskubideak eratzen eta eskualdatzen direnean, urteko portzentajeak, artikuluan honetako 3. artikuluan adierazi direnak, aurreko letran definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoretarako finkatuta dauden arauak ezarriz, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.

c) Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea eratzen edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitzeko eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, artikuluan honetako 3. idatz-zatian aipatutako urteko portzentajeak a) letran finkaturiko balioaren zatia aplikatuko zaizkio, eta balioari eskualdaketa-eskribaturik finkaturiko proportzionaltasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduran edo zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.

d) Derrigorrezko desjabetzapenak daudenean, artikuluan honetako 3. idatz-zatian bildutako urteko portzentajeak lurraren balioari dagokion balioespenaren zatia aplikatuko zaizkio, lur horren katastro-balioa txikiagoa denean izan ezik, horrelakoetan azken balio honek lehentasuna izango baitu balioespenaren gainetik.

3. Gehikuntza hori agerian jarri den urte kopurua izango da balio-gehikuntzaren sortzapenaldia.

Zergaren kargapean ez dauden kasuetan, salbu eta foru-agindu bidez besterik ezartzen ez bada, lursailaren geroko eskualdatze batean agerian jarritako balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia kalkulatzeko eskuratze-datatzat hartuko da zergaren aurreko sortzapena gertatu zen data, aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, foru-arau honen 2. artikulua 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezin geroko eskualdatzean, lursailen balio-gehikuntza agerian jarri den urte kopurua kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko lursailak eskuratu aurreko aldia, kasu hauetan izan ezik: zergapean ez dauden ondasun higiezin ekarpen edo eskualdatzeetan, kontuan harturik zer ezarrita dagoen foru-arau honen 2. artikuluko 4. idatz-zatian, edo 2. artikulua 3. idatz-zatian; kasu horietan, aurreko paragrafoan xedatu dena aplikatuko da.

Igaro den urte kopurua kalkulatzeko urte osoak soilik zenbatuko dira; ez dira kontuan izango urte-zatikiak. Baldin eta sortzapen-aldia urtebete baino gutxiago bada, urteko koefizientea hainbanatuko da, hilabete osoak zenbatuta; hau da, ez dira kontuan izango hilabete-zatikiak.

Sortzapenaren unean lursailaren balioari aplikatu behar zaion koefizientea aurreko idatz zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu— ondoko taularen arabera dagokiona izango da:

Sortzapen-aldia	Koefizientea
-----------------	--------------

Urteb. Baino gutxi	0,14
--------------------	------

Urte	10,13
------	-------

2 urte	0,14
--------	------

3 urte	0,14
--------	------

4 urte	0,16
--------	------

5 urte	0,17
--------	------

6 urte	0,16
--------	------

7 urte	0,12
--------	------

8 urte	0,10
--------	------

9 urte	0,09
--------	------

10 urte	0,08
---------	------

11 urte	0,08
---------	------



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

5. Ordenantza Fiskala Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga

12 urte0,08

13 urte0,08

14 urte0,09

15 urte0,09

16 urte0,10

17 urte0,12

18 urte0,16

19 urte0,22

20 urte edo gehiago0,35

Gehienezko koefizienteak foru-arau bidez eguneratu ahal izango dira.

Baldin eta, aurreko paragrafoan aipatzen den eguneratzearen ondorioz, indarrean dagoen ordenantza fiskala dela bide onartutako koefizienteren bat handiagoa bada lege ezarritako gehieneko koefizientea baino, zuzenean aplikatuko da handiagoa den koefiziente hori, gaindikin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

4. Subjektu pasiboak eskatuta eta 2. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako prozedurarekin bat, egiaztatzen denean balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honen aurreko idatz-zatietan jasotakoarekin bat zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, baliogehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

ZERGA KUOTA

7. ARTIKULUA

Zerga honen kuota kalkulatzeko, honako taula honetatik ateratzen den karga-tasa aplikatuko zaio zerga-oinarriari:

< urtebete eta 5 urtera arteko aldia %10

6 urtetik 10 era bitarteko aldia %9

11 urtetik 15 era bitarteko aldia %8

16 urtetik 20ra bitarteko aldia %7

VI. ZERGAREN SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

1. Zergaren sortzapena ondoko kasuetan gertatuko da:

a)Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostubidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa egunean gertatuko da.

b)Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean. Sortzapena eraketa edo eskualdaketa egunean gertatuko da.

2. Arestian adierazi denaren ondoreetarako, eskualdaketa datatzat ondokoa hartuko da:

a)Bizien arteko egintza edo kontratuetan agiri publikoa egilesten denekoa eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo lanbidearen zioz funtzionario publiko bati ematen zaizkionekoa.

b)Heriotzaren ziozko eskualdaketa, kausatzailearen heriotza eguna.

3. Baldin eta, epai edo administrazio ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurrak edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zergaren itzulketarako eskubidea izango du, baldin eta egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik hiru urte igaro baino lehen eskatzen bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko ondoreak daudela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez betetzearen ondorioz adierazten bada ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

4. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua ondorerik gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea eta egintza zergapeko egintza berritzat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

5. Egintza edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, Zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketa aurreko idatz-zatiko arauari jarraituz eginez gero.

6. Alkar-poderosoaren edo ordenatzaile-ahalaren bidezko jaraunspenetan, zergaren sortzapena ahala osorik erabiltzen denean edo ahala iraungitzeko gainerako karietariko bat gertatzen denean izango da.

Alkar-poderosoan edo ordenatzaile-ahalean norbaiti zerga honen pean dauden jaraunspeneko ondasunen gozamenaren edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

5. Ordenantza Fiskala Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga

izango duena, biziarteko gozamenari buruzko arauen pean, eta bestea behin betikoa, alkar-poderosoa edo ordenatzaile-ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-behineko likidazioagatik ordainduko dena konturako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazioa eta alkar-poderosoa edo ordenatzaile-ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunsle direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

VII. KUDEAKETA

9. ARTIKULUA

Subjektu pasiboek zergarako aitorpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina, kuota zehazteko ezinbestez behar diren zerga elementuak eta gainerako datuak bilduko dituen. Kuotaren ordainketa aitorpena egiten den unean bertan egin beharko da.

10. ARTIKULUA

Aitorpena aurkeztu eta berari dagokion kuota ordaintzeko epeak honakoak izango dira, zergaren sortzapen egunetik zenbatuta:

- a) Inter vivos egintzak izanez gero, 30 asteguneko epea.
- b) Heriotzaren ziozko egintzak izanez gero, urtebeteko epea.

11. ARTIKULUA

Aitorpenarekin batera, beti ere, zergapeko egintza edo kontratua agerrarazteko egindako agiria aurkeztuko da, behar bezala kautoturik.

Eskatzen diren salbuespen edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

12. ARTIKULUA

Udal Administrazioak pertsona interesatuari agindeia egin eta hogeita hamar eguneko epea jarri ahal izango dio, interesatuak eskatuz gero beste hamabost egun luzatu ahal izango dena, zergaren likidazioa egiteko beharrezkotzat jotzen diren gainerako agiriak aurkez ditzan. Epe horretan agindeiari ez erantzutea zergen arloko urratzea izango da, baldin eta eskatutako agiriak aitorpena egiaztatzeko beharrezkoak badira. Agiriok interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatzeko bitarteko hutsak badira, berriz, eta agindeiari erantzuten ez bazaio, alegatu bai baina frogatu gabeko zertzeladak kontuan hartu gabe egingo da likidazioa.

13. ARTIKULUA

9. artikuluan xedatu dena gorabehera, ondoren aipatuko direnek ere zerga egitatea jakinarazi behar diote Udalari, subjektu pasiboek ezarritako epe beretan:

a)Zerga ordenantza honen 5. artikuluko a) letran adierazitako balizkoak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintza-emailea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duena.

b)Arestian aipatu den 5. artikuluko b) letrako balizkoak gertatzen direnean, eskuratzailerak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona.

14. ARTIKULUA

Halaber, notarioek, egutegiko hiruhileko guztien lehenengo hamabostaldietan, egutegiko aurreko hiruhilekoan egiletsiak dituzten agiri guztien zerrenda igorri behar diote Udal Administrazioari. Udalerrian zerga honen peko egitatea gertatu dela agerian jartzen duten egitate, egintza edo negozio juridikoak jaso behar dituzte zerrenda horretan, hilburuko egintzak izan ezik. Halaber, sinadurak aintzatetsi edo legeztatzeko aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuaren zerrenda igorri behar dute epe berean. Artikulu honetan ezarritakoa gorabehera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lagundu behar orokorra bete behar da.

15. ARTIKULUA

Udal Administrazioak, aitortu gabeko zerga egitateren baten berri jakiten badu, 10. artikuluan adierazitako epeetan, interesatuei agindeia egingo die aitorpena egin dezaten, zergen arloko urratzeengatik bidezkoak izan litezkeen zehapenen kalterik gabe.

16. ARTIKULUA

Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoa dela bide, Bizkaiko Foru Aldundiak eta toki-erakundeek lankidetzan jardungo dute zerga aplikatzeko, bereziki, 2. artikuluen 4. idatz-zatian eta 6. artikuluen 4. idatz-zatian ezarritakoa betetzeko. Horretarako, zergei buruzko informazioa trukatzeko eta lankidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dira.

VIII.XEDAPEN IRAGANKORRA

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren zerga-oinarria zehazteko, eta katastroko balioak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 9/1989 Foru Arauan ezarritako moduan berrikusten ez diren bitartean, Udalak honako balioak aplikatuko ditu:

a)Lurzoruari dagokion arauzko gutxieneko balioa ezartzeko arau teknikoak aplikatzeagatik eratorritako lurzoruen benetako balioa.

Erabilera batek lurzoruari eta eraikinari egotzi beharreko gutxieneko balioa banakatuta ez badu, horri hori bera aplikatu zaio %60ko gutxipenarekin.

Interesdunek lurzoruen gainean aitortzen duten balioa, zerga hau dela eta, letra honetan ezarritako arauak aplikatzearen ondoriozko emaitza baino handiagoa izango balitz, hori bera izango litzateke zerga-oinarria.



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

5. Ordenantza Fiskala Hiri-lurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga

b) Lurrek ez badute eman ahal zaien gutxieneko balioa ezarrita, zerga hau likidatzeko oinarria izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako ezarritako katastro balioa, %60ko gutxipenarekin.

c) Zergaren sortzapen aldian eman ahal zaien gutxieneko balioa ezarrita ez duten lurren kasuan, edo, hori ezean, katastro balioa ezarrita ez dutenen kasuan, horien balioztat hartuko da Ermuko udalean indarrean dauden balioko unitate tasen indizeak aplikatuzetik sortutako balioa.

IX. XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Zerga ordenantza hau indarrean jartzen denean indargabetu egingo dira haren maila bereko eta beheagoko xedapenak.

X. AZKEN XEDAPENA

Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga araupezu duen zerga ordenantza honek 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249 alean argitaratu eta gero, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldarazi edo indargabetzea erabaki arte.